



ELKARBIZITZA PLANA

URKITZA HLHI

2019ko ekaina



AURKIBIDEA

JUSTIFIKAZIOA

SARRERA

a) IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK

- o *Ikastetxearen ingurune ezaugarriak*
- o *Ikasleriaren analisia*
- o *Eskolako analisia*
- o *Ikastetxeko zuzendaritzaren egonkortasuna eta jarraitutasuna*
- o *Irakasleek, ikasleek, familiekin, eta gizarteko beste eragile batzuekin ikastetxeko bizitzan parte hartzeko duten ohitura.*
- o *Ikastetxearen antolamendua eta funtzionamendua arautzen duten oinarrizko agiriak*

b) GAUZATUTAKO PROZESUAREN AZALPENA

- o *Ikastetxean, elkarbizitza alorrean, alde aurretik egindako lanaren azalpen laburra.*
- o *Plana egiteko modua:*
 - *Gauzatutako prozesuaren azalpen laburra.*

d) HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN ELKARBIZITZARI ETA ONGIZATEARI BURUZKO IKASTETXEAREN DEFINIZIOA

e) HOBEKUNTZA-EKINTZAK PLANIFIKATZEA. PLAN BATERAKO PROPOSAMENA

- o *Elkarbizitza Behatokiaren osaera*
- o *Ikasleen eskubide eta betebeharrak*
- o *Elkarbizitzarako arautegia*
- o *Esku- hartze mailak*
 - *Prebentzioa*
 - *Arrisku faktoreak identifikatu eta erasoak ekiditen*
 - *Ageriko eraso portaerak ezabatzen*

f) JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA



JUSTIFIKAZIOA

Hezkuntza-sistemaren helburuetako bat gaitasun sozial eta gizabidezkoak garatzea da, elkarbizitzarako gaitasuna alegia (236/2015 Dekretua, EAEko eskola-curriculumeko zeharkako oinarrizko gaitasuna). Bizitzarako ikasketarik baliagarriena pertsona bakoitzak bere buruarekiko eta beste pertsonerekiko harreman positibo bat lortzea da, eta hori da hezkuntzaren ardatz nagusia, zuzentasuna, berdintasuna, elkartasuna, elkarrekiko errespetua eta indarkeriarik ezaren balioei dagokienez. Horregatik, XXI. mendeko heziketaren erronka elkarbizitza, bakea eta giza-eskubideen aldeko heziketaren bidez aurrera egitea da.

EAEan azken urteotan hezkuntzaren inguruan eginiko hainbat ikerketa eta azterlanek azpimarratu dute elkarbizitzari heltzea, prebentzioan eta irakasleen eta ikastetxeetako zuzendaritzen lan proaktiboan oinarrituz. Jarrera horrek ahalbideratzen du arreta elkarbizitza positiboaren aldeko estrategietan jartzea eta ez hainbeste elkarbizitza hori eteten duten kasu larriei eman beharreko unean uneko erantzunean, beharrezkoa ere.

Hezkuntza-esparruan, elkarbizitza hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragile guztien erantzukizuna da. Hori dela-eta, esparru horretan jarduera positiboak sustatu behar dira, eta proposamen eta berariazko esku-hartze bidez elkarbizitzaren kudeaketa (ikastetxearen eta bere inguruaren arteko harreman positiboa, bere araudia, eraketa, eskola- curriculumaren kudeaketa,...) sustatuko duten taldeak eratu behar dira.

Elkarbizitza positiboaren sustapenean zuzenean parte hartzen dutenek arreta handiz prestatu beharko dituzte helburu hori sustatzeko esku- hartzeak, eta haien eraginkortasunaren jarraipena egin beharko dute.

Esku-hartzeen plangintza benetan baliabide sustagarria izango den dokumentu batean jaso beharko da, esku-hartzeak ikastetxearen eguneroko jardunean islatu daitezen eta hartutako erabakiak adostasunaren ondorio direla bermatu, sistematikoki praktikan jarri eta haien eraginkortasunaren jarraipena egin dadin, eta horrez gain, egindako bidea, metodología eta adostutako prozedurak bildu beharko ditu.

Aipatutako dokumentuak nagusiki erantzungo dio ikastetxean elkarbizitza positiboa bermatzeko beharrari eta ikasleek arian-arian *Elkarrekin bizitzen* zeharkako oinarrizko gaitasuna eskuratzeko prozesuari.

Honetaz gain, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoak ezartzen duen 236/2015 Dekretuan (2016/01/15eko EHAA) ikasleak eskola uztean izan behar duen profil orokorra garatzen lagunduko digu. Bertan zehazten da ikasleak zer gaitasun izan behar dituen Oinarrizko Hezkuntza Orokorra amaitzean, hezkuntza- helburuak lortu eta bizitzako esparru eta egoera guztietan moldatzen jakin dezan. Gaitasun horien artean dago elkarbizitzarako gaitasuna, modu honetan zehaztuta:

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea, eta norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak besteri aitortzea, norberaren zein guztion ongirako. (7.2.c. artikulua)

Baina, asmo horiek egia bihurtzeko, ezinbestekoa da plangintza arduratsua egitea, epe laburrerako planetan zehaztuz epe luzera gauzatuko den plana.

Esku artean daukagun dokumentua, besteak beste, Urkitza HLHI-k elkarbizitzarekin daukan konpromezua islatu gura du.



SARRERA

Pasadan ikasturtean (2017-2018) Elkarbizitza Plana berrizteko erabakia hartu genuen. Aurtengo ikasturtean (2018-2019) idatzitako dokumentu hau aurretik egindako lanaren ondorioa da.

Era berean datorren ikasturteetan Urkitza HLHI ikastetxea osatzen dugun guztion eguneroko giro ona mantendu eta hobetzen lagunduko digun tresna izatea espero dugu.

a) IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK

o *Ikastetxearen ingurune ezaugarriak*

Bakio, Bermeo eta Armintza artean dagoen kostaldeko herri txikia da. Itsasertzean dagoen arren, harreman estuenak barrualdeko herrieekin ditu, batez ere Mungiarekin. Eskolako umeak institutura ere bertora joaten dira.

Naturan murgildutako herria da; Jata, Sollube eta Burgoa mendiez inguratua, itsasora zabaltzen den haranean dago.

Kostaldeko herri honetan beste fenomeno batek izan du eragin handia azkenengo hamarkadetan: turismoa. Hondartza eta hondartza inguruak ustiatuz herri turistikoa bihurtu da Bakio, eta eraikuntzak, zerbitzuak, jatetxeak eta beste zerbitzu batzuk horretara bideratu ditu. Datu esanguratsua dugu horren harira: Bakioko biztanleak boskoiztu egiten dira udan.

Gainera, lehen udan bakarrik egoten ziren familia askok Bakion urte osoan bizitzea erabaki dute. Herriko biztanleria¹ %19 igo da azken 10 urtetan eta gaur egun 2584 bizilagun ditu. Hauek guztietatik %12 Euskal Autonomi Erkidegotik kanpo² jaiotakoak dira. Hazkunde honen ondorioz, herriko jendeaz gain, beste familia horien seme-alabak ere baditugu eskolan.

Herri euskaldunatzat eduki arren, aurretik aipatutako populazioaren hazkundeak eragin zuzena izan du hizkuntzen erabileran eta gaur egun bere biztanleek nagusiki erdara erabiltzen dute euren eguneroko bizitzan. Herritarren %58,24a euskalduna da, %22,83a ia-euskalduna eta %18,93a erdalduna da³.

Hala ere, euskal kulturaren hainbat alderdi oso errotuak daude, besteak beste, herri kirolak, esku-pilota, dantzak... Herriaren nortasuna eta kultura oinarritutako heziketa bultzatzen du eskolak.

Irakasleek eta gurasoek hartu-eman estua dute, eskola hurbil sentitzen baitute. Hau dela eta, familiak eskolako zein herriko egunerokoan inplikatzeko aukera handiak dituzte.

o *Eskolako analisia*

Urkitza eskolak, herria legeztatu, hazkunde itzela jasan izan du azkeneko hamarkadan ikasle kopurua %100an handituz. Gaur egun, nahiz eta lerro bakarreko ikastetxea izaten jarraitu, 200 ikasle⁴



baino gehiago ditu. Egungo, herriaren Haur eta Lehen Hezkuntza dauden matrikula posiblen ia %70a ikastetxean dago⁵.

Eskola publikoa da, hots, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren administrazioaren menpean dago, eta herriko eskaintza bakarra da. 2 urtetik 12 urtera arteko neska-mutilen garapen osoaren aldeko lanean dihardu. Eskola euskalduna da, baina, arestian aipatutako populazioaren hazkundeak izandako eragin zuzenak eskolan ere eragina izan du.

1. Biztanleriaren datua 2017.urtekoa da. Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) web orrialdetik hartutakoa.
2. 2017.urteko datua. Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) web orrialdetik hartutakoa.
3. 2011.urteko datua. Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) web orrialdetik hartutakoa.
4. Urkitza HLHI ikastetxeko matrikulatik hartutako datuak.
5. Urkitza HLHI ikastetxeko matrikulatik eta udaletxeetatik hartutako datuak.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleek, herriaren erdigunean kokatutako eraikinean ikasten dute. Ikastetxearen ondoan, herriko beste zerbitzu batzuk ere badaude: udaletxea, kultura-etxea, haur-eskola, adinekoen etxea... eta hurbil baita osasun zentroa ere.

Elkarren ondoan dauden bi eraikinez osatuta dago eskola: ikastetxea eta jantokia den oktogono formako eraikina. Ikastetxeak bi solairu ditu. Beheko solairuan ikasgelaz gain, zuzendaritza, Idazkaritza, biltegi bi, psikomotrizitate gela, komunak eta dutexak ere badaude. Goiko solairuan, berriz, beste ikasgela batzuk eta irakasle-, musika-, laguntza- eta ingeles-gelak daude. Aurki, eraikitzen ari diren aterpea ere izango du eskolak.

Instalazio hauetaz gain, Ikastetxea eta udalak duten harreman estuaren ondorioz eskolak, bere proiektua aurrera eramateko igeritokia eta herriko liburutegia bereziki erabiltzen ditu.

Herriko haur-eskola, ikastetxearen parte ez bada ere, gure zentroaren aldamenean dagoen eraikinean dago. Urtean zehar, gure ikastetxe eta haur-eskolaren arteko harremanak ohikoak dira: Olentzero eta Santa Ageda egunetan, matrikula garaian...

Eskolako ordutegia etengabekoa da 9:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte astelehenetan, eta arratsaldeko 16:30ak arte asteartetik osteguna arte. Ikasleriaren gehiengoak jantokia erabiltzen du eta gutxiengo batek eskolako autobusa eta goizeko 8:00etatik 9:00ak arte eskeintzen den umeak jagoteko zerbitzua.

Jantoki ordutegiaren barne eta ikastetxeko ordutegitik kanpo eskeintzen diren eskolaz kanpoko ekintzak, eskolako Guraso Elkartek kudeatzen ditu. Ikasleen eskariei erantzuna ematen gogotsu saiatzen diren arren, kopuruagatik eta adin ezberdinen eskaera motengatik, ezin dira guztiak aurrera eraman. Ostera, badira udalak eta herriko talde ezberdinek eskaintako bestelako aukera mordoa (udal-musika eskola, kiroldegia, dantza-taldeak, futbol-taldea...) gure ikasle asko parte hartzen ohi dutenen artean.

Aldi berean, Guraso Elkartek eskolaren eguneroko bizitzan parte hartzen du, modu honetan:

- Eskola eta herriko jaien antolamendu eta koordinazioan: Olentzero, aratustekak...
- Bi urtekoen gelaren laguntzailearen kontratazioaren kudeaketa.
- Ikasturte amaierako festaren antolamenduan .
- Familien arteko harremanak estutzeko edota euskararen erabilera bultzatzen dituzten ekintzen antolamendua.
- Udalaren bidez, ikasle eta familientzat interesgarriak diren hitzaldiak antolatzen.
- Eskola egutegia eginez.



- Eskolarekin kolaboratu erakundearen aurrean bultzatzen egiteko (gehien bat udala eta Hezkuntza saila...), eskola instalazioak hobetu eta beharrianak konpontzeko asmoarekin.

Ikasturtean zehar, Zuzendaritza Taldea eta Guraso Elkartearen eta OOGko batzordeen arteko bilerak izaten dira, ikasleen eskola bizitzaren arlo ezberdinak baloratu, aztertu zein hobetzeko helburuarekin.

o **Ikasle, irakasle eta langilearen analisia**

Eusko Jaurlaritzak egindako 2017ko ebaluazio diagnostikoaren arabera eskolan matrikulatuta dauden familiak ISEC⁶ maila altuan kokatzen dira. Langabezi tasa⁷ (%15,1) Euskadiko Autonomi Elkartekoaren batz besteko bera da baina azpimarratzekoa da Bakioko langileen⁸ %80k herritik kanpo lan egiten duela.

6. ISEC. Índice Socioeconómico y Cultural. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) egindako ebaluazio diagnostikotik ateratako datua.
7. Langabezia tasaren ehunekoa 2016. urteko datua da. Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) web orrialdetik hartutakoa.
8. Herritik kanpo lan egiten duen langileen ehunekoa AMPAK familiei pasatutako galdesortatik hartu dugu.

Aipatutako txosten honen arabera ere, eskolaren ikasleriaren %94.7a bertakoa da eta etorkinak %5,3a baino ez dira.

Gaur egungo irakasleria hurrengoak osatzen dute:

- o HHko 6 irakasle
- o LHko 6 irakasle
- o Ingelesaren irakasle bat eta erdi
- o Gorputz Hezkuntzako irakaslea
- o Musika irakaslea erdia eta jantokiko arduraduna
- o Aholkularia
- o Erlijio Katolikoaren irakaslea (astean 3 ordu)
- o Pedagogia Terapeutikaren irakasle bat eta erdi
- o Kanpotik etorritako beste zerbitzu batzuk (logopeda, fisioterapeuta...)

Gainera hurrengo beste langileak ere baditu:

- o Hezkuntza bereziko 1 hezitzaile
- o Jantokiko office-eko 2 langile
- o Jantokiko 8 begirale
- o Autobusetako 1 monitore
- o 2 garbitzaile

Eskolako irakasleen lanpostua behin-betikoa da %79 batean. Besteak, bizpahiru ikasturte daramatzate gure artean. Dena den, Hezkuntza Sailak zehazten du beti ere eskola bakoitzaren LPZ (Langile Postuen Zerrenda).

o **Ikastetxeko zuzendaritzaren egonkortasuna eta jarraitutasuna**

Gaur egun Urkitza HLHIko zuzendariak 2018 -2022 urteetarako Zuzendaritza Proiektua aurkeztu du. Hala ere, eskola honetako Zuzendaritza taldearen egonkortasuna aspaldikoa da, 4 urte daramatzate (Zuzendaria, ikasketa burua eta idazkaria) elkar lanean eta aurreko 3 urteetan orain zuzendaria dana ikasketa burua izan zen. Idazkaria ere, urte mordoan daroa bere eginkizunean. Urkitza ikastetxeak



zuzendaritza taldeen aldaketa progresiboa erraztu egin du azken hamar urte hauetan, jarraipenaren garrantzia bultzatuz.

- o ***Irakasleek, ikasleek, familieek, eta gizarteko beste eragile batzuek ikastetxeko bizitzan parte hartzeko duten ohitura***

Gure eskolan parte hartzeko ohitura aipagarria da. Bakio herri txikia da eta familia guztiek eskolan parte hartzeko ohitura izan dute beti. Urkitza HLHI herrikoa eta familiena dela sentitzen dute. Hoberen behatu daitekeen egoera, eskola eta herriko jaialdietan da. Bakio jaialdietako hainbat ekintza; Olentzero, Euskera eguna... eskolako AMPAk antolatzen ditu. Ugariak dira ere, herriak eskolarentzako eskaintzen dituzten jarduerak. Aipagarriena Umeen Hiria programa. Urtero, gurasoek eskolako herriko agenda egiten dute ere. Hau, euskera kanpaina eta beste zenbait ekintzako ardatza izango da.

- o ***Ikastetxearen antolamendua eta funtzionamendua arautzen duten oinarrizko agiriak.***

Aurreko ikasturteetan AJA dokumentua berritu genuen eta aurtan, iaz berrizten hasi ginen IHP (Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua) bukatzeko asmoa dugu. ICP (Ikastetxeko kurrikulum proiektua) eta Hizkuntza Proiektua berrikustea izango dira gure hurrengo erronkak.

b) GAUZATUTAKO PROZESUAREN AZALPENA

- ***Ikastetxean, elkarbizitza alorrean, alde zuzenetik egindako lanaren azalpen laburra.***

Orain arteko ikasleekin egindako lana gure arteko barne akordioetatik aterata zen. Aspaldi Elkarbizitza Plan bat adostuta genuen baina atarian aipatu dugun legeak, eskolako egoera eta honen ondorioz egunero kudeatu behar ditugun konfliktuak aldatu egin dira ere. Arazoak gehienetan garrantzi gutxi eta arin konpontzekoak izan dira, batez ere gelakoak. Hala ere, batzuetan prebentzio-lanaren esparrua indartzeko beharra ikusten genuen eta leku askotan bezala, jantokia eta patioak askotan izan dira gatazken sorleku. Honen aurrean gure erantzuna beti elkarbizitza, hausnarketa eta tutore-familien bitarteko lana izan dira.

- ***Plana egiteko modua:***

- o **Gauzatutako prozesuaren azalpen laburra**

Elkarbizitza plana aurrera eramateko, prozesu luze eta neketsua izan da:

Aurreko ikasturteetan zuzendaritza taldeak eskola komunitatearen kezkak jasotzen zituenean (klastro, ziklo bilera, eskola kontseilu...), gai hau behin baino gehiagotan agertzen zen. Hau dela eta, Urkitza eskolako irakasleria, zuzendaritzaren lidergoarekin, gai honi heltzea erabaki zuen.

Diagnostikoaren faseari hasiera emateko, eztabaida foro desberdinetan jasotako aktak, eta gai honeri buruz eskolak jasotako inzidentziak aztertu genituen. Lan honek, Urkitza HLHI ikastetxeak zituen ahuleziak eta indarguneak zehazteko aukera eman zigun.

Informazio honekin adituengana jo eta gure formakuntzarako proposamena aurkeztu genion. Berrituzegune Nagusiko aholkularitzarekin berba egin ostean, Gizagune Fundazioarekin formakuntza egitea erabaki genuen. Formakuntza sakona eta itzel aberasgarria izan zen. Tresna berri asko ikasteaz



gain, hausnarketa, diagnostiko, detekzio eta esku-harmenerako ere oso baliogarria izan zen. Honen ostean, irakasleriaren artean Elkarbizitza Plana osatu duen hainbat proposamen diseinatu genituen.

Plan honen beste esparru asko aurrera eramateko Eskola Kontseiluaren eta Elkarbizitza Batzordearen parte hartzea ere izan dugu.

Gutxi gora behera gomendatzen den prozedura eraman dugu, sentsibilizazio fasea izan ezik. Eskola komunitateak euren iritzia adierazteko ditugun foro desberdinetan (Eskola Kontseilua, Batzar Orokorra...) gai honekin oso sentsibilizatuak zeudela antzeman genuen eta diagnostiko fasean sakontzea eragingarriagoa izango zela erabaki zen.

d) HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN ELKARBIZITZARI ETA ONGIZATEARI BURUZKO IKASTETXEAREN DEFINIZIOA

URKITZA HLHI ELKARBIZITZAREN DEFINIZIOA

Urkitzako eskolan bizi garenon ustez, elkarbizitza ona haxe litzateke:

*“Gure artean errespetuz bizi eta elkarriketaren bidez gure gatazkei aurre egitea.
Horretarako interesatzen zaizkigun proiektuak aurrera eramateko guneak/uneak sortu behar dira denok parte hartu ahal izateko.
Hau lortzeko guztion artean oinarritzko arau batzuk adostu eta bete behar ditugu, beti ere irtenbide prebentibo eta indar-berritzaileak bilatuz.”*

e) HOBEEKUNTZA-EKINTZAK PLANIFIKATZEA. PLAN BATERAKO PROPOSAMENA

o *Elkarbizitza Behatokiaren osaera*

Ikastetxeko eta eskola-komunitateko elkarbizitzaren inguruko helburu edo jarduerak erraztu, sustatu, garatu eta ebaluatzeko erreferentziatzko egitura edo organoa ondorengoek osatzen dute:

- a) Ikasketa burua edo zuzendaritza-taldeko beste kide bat, edo biak.
- b) Etapetako koordinatzaileak
- c) Jantokiko ardura duna
- d) Orientazio-departamentuko kide bat
- e) Bizikidetzatza-batzordeko kide bat

Bizikidetzarako giro egokia bermatzea izango da batzordearen betebeharra (bai eta, edozein arrazoiengatik giroa txartzen bada, bere onera ekartzea ere) ⁹.

o *Ikasleen eskubide eta betebeharrak*

Ikasleen Eskubide eta betebeharrak buruzko 201/2008 aplikatzeko gidan oinarritutako dokumentua sortu dugu Urkitza HLHI ikastetxean. Gure asmoa ikastetxeko egunerokora hurbiltzen den erabilgarria den dokumentua sortzea izan da.



o **Elkarbizitza bermatzen duen esku-hartzea**

ESKU-HARTZE MAILA (1.maila): PREBENTZIOA, jasarpenetatik babesteko neurriak hartzen.		
IKASTETXEA	IKASGELA	FAMILIAK
✓ <i>Talde dinamizatzailerak</i> ✓ <i>Sentsibilizazioa</i> ✓ <i>Formazioa</i> ✓ <i>Kanal komunikatiboak:</i> <i>Ikasle-tutore:</i> - o Banakako tutoretzak - o Postontzia - o Ni eta eskola... <i>Jantoki-tutore:</i> ... <i>Jolasordu-tutore</i> ... - Eskolaz kanpoko jarduerak- tutore - Arauak: espazio komunitario	✓ Eskubideak eta bete beharrak landu: - o Arauak - Zeintzuk? - Nola beteerain? - Ondorioak ✓ Talde kohesioa: - o Tutoretza (eguneroko arazoetatik hitz egiteko) - o Ordu soziala (jolas kooperatiboak, gizaguneko unitate didaktikoak...)	✓ Gurasoak eskolan ✓ Proposamenak, egonekinak eta iradokizunak jaso eta bideratu ✓ Elkarriketak (gurasoekin hitz egiteko ordua) ✓ “Guía para las familias”: - o Derechos y deberes - o Bullyng

9. Antolakuntza eta Jarduera-Araudia. IV.kapitulua. I.atala. 24.artikulua.

ESKU-HARTZE MAILA (2.maila): 2.A: Arrisku faktoreak identifikatu eta erasoak ekiditen.		
IKASTETXEA	IKASGELA	FAMILIAK
✓ Talde dinamizatzailerak ✓ <i>Behaketa sistematikoa</i> ✓ Elkarriketak - o Banaka	✓ Behaketa doituak ✓ Autoinformeak ✓ Nire bizitza eskolan	✓ <i>Bilerak:</i> - o Familiekin - o Biktimekin - o Erasotzaileekin ✓ Elkarriketa
ESKU-HARTZE MAILA (2.maila): 2.B: Ageriko eraso portaerak ezabatzen.		
✓ Ardurak banandu - o Nork, zer...	✓ CES	✓ PICAS



	✓ BULL	
--	--------	--

f) JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Urteko planean urtero agertuko den alderdia izango da Elkarbizitza Plana. Honek, aldian-aldian, dokumentuaren eraginkortasuna neurtzeko tartetxo bat bermatuko du, emaitza positiboa ez balitz aldatzeko edo eguneratzeko eta sortzen diren egoera berrietara egokitzeko. Urteko Planean elkarbizitzako helburuen ebaluazioaren emaitzak oinarritzko erreferentziak izango dira Elkarbizitza Planaren ebaluaziorako. Horrela jakingo baitugu planifikazioa eta urteko zehaztapenerako prozedura eraginkorrak diren eta planaren helburu guztien lorpen etengabea bermatzen duten, edo helburu orokorrak aldatu eta ikastetxeko egoerari hobeto egokitzen zaizkion beste batzuk ezarri behar diren. Beharrezkoa ikusi dugu ere, plana eskolako SITEan argitaratzea gurasoen ezagupen maila handitu nahian.

Hau guztia, planaren jarraipena eta nolabaiteko kanpo zein barne ebaluazioa bermatzen dutela uste dugu.

Lau urterik behin, elkarbizitza behatokian, eskola komunitatearen parte hartzea bermatzen duen planaren ebaluazio-prozedura adostuko du. Behatokiak emaitzak aztertu eta aldaketa posibleak proposatuko ditu.